Errenteriako Udala
Zk. / Nº 2024/963
Data / Fecha 2024/04/10
DEKRETUA / DECRETO

**Espediente zk./**Nº Expediente**:** 2024SDBD0011
**Gaia/**Asunto**:** Lokal eta espazio hutsak dinamizatzeko dirulaguntzak, hiri ekonomiaren arloko enpresa ekimenak abian jarriz eta mantenduz (II). Subv para dinamizar locales y espacios vacíos, con la puesta en marcha y mto de inic. empresariales ámbito de la econ. Urbana (II).
**Eskatzailea**/Solicitante**:** SDBD **NAN(IFK)**/DNI(NIF): 90909090A
**Kokalekua/**Emplazamiento: ERRENTERIA

## DEKRETUA

### AURREKARIAK

Dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorrak, azaroaren 17koak, xedatzen du tokiko udalbatzek dirulaguntzen oinarri arautzaile egokiak ezartzeko beharra.

Araudi hori aplikatzeko, Udalak onartu du Errenteriako Udalaren dirulaguntzak ematea arautzeko Udal Ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko GAO).

2023ko azaroaren 8an Alkateak emandako 2758 zenbakiko dekretuaren bidez, Errenteriako Udalak 2024 urtean eta 2024-2025 ikasturtean dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak onartu dira.

2023ko azaroaren 10ko 2806 zenbakia duen Alkatearen dekretuaren bidez, 2758 dekretuaren zuzenketa egin zen.

Erabaki honetan deitzen diren dirulaguntzak Udalaren 2024-2027rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan bilduta daude.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Diru-laguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.

Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (GAO 2015/08/10).

Errenteriako Udalak 2024 urtean emango dituen diru-laguntzen Oinarri Orokorrak (2023/11/08ko 2758 zk.ko dekretua), modu osagarrian aplikatuko direnak.

## DECRETO

### ANTECEDENTES

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, establece la necesidad de que las corporaciones locales establezcan las oportunas bases reguladoras para el reparto de subvenciones.

En aplicación de esta normativa el Ayuntamiento de Errenteria ha aprobado la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (B.O.G. de 10 de agosto de 2015).

Mediante decreto de Alcaldía nº2758 de fecha 8 de noviembre de 2023 se han aprobado las bases generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2024 y el curso 2024-2025.

Mediante decreto de la Alcaldesa n.º 2806 de 10 de noviembre de 2023 se hizo una corrección de errores del decreto 2758.

Las líneas de subvención cuya convocatoria es objeto del presente acuerdo, están incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento 2024-2027.

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (BOG 10/08/2015).

Bases Generales para la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria del año 2024 (Decreto nº2758 08/11/2023), de aplicación supletoria.

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

Espedientean jasota dago 2024ko martxoaren 22ko txosten teknikoa, Ogasun eta Garapen ekonomikoko teknikariak sinatua.

Consta en el expediente informe técnico de fecha 22 de marzo de 2024 suscrito por el Técnico de Hacienda y Desarrollo Económico.

Udal Idazkariak 2024ko apirilaren 4an oniritzia eman dio dekretu proposamenari.

La secretaria municipal ha dado el visto bueno a la propuesta del decreto el 4 de abril de 2024.

Udal Kontuhartzaileak, fiskalizazio txostena 2024ko apirilaren 4an siñatu du.

La interventora del ayuntamiento ha firmado el informe de fiscalización el 4 de abril de 2024

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Udal aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por el asesor jurídico municipal a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Honen bidez,

Por la presente,

**1.- Onartzea Hiri-ekonomia mantendu eta sustatzeko enpresa-ekimen berriak abiaraziaz lokal eta kale espazio hutsak dinamizatzeko dirulaguntza (II) // Subvención para dinamizar locales y espacios vacíos mediante la puesta en marcha de nuevas iniciativas empresariales para el mantenimiento y promoción de la economía urbana (II), proiektuak gauzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia, eranskinean jasota dagoena.**

**1.- Aprobar la convocatoria para la concesión de subvenciones para Hiri-ekonomia mantendu eta sustatzeko enpresa-ekimen berriak abiaraziaz lokal eta kale espazio hutsak dinamizatzeko dirulaguntza (II) // Subvención para dinamizar locales y espacios vacíos mediante la puesta en marcha de nuevas iniciativas empresariales para el mantenimiento y promoción de la economía urbana (II), que se adjunta como Anexo.**

**2.- Gehienez 175.000 euroko gastua baimentzea 2024 eta 2025. urteko Udal Aurrekontuaren hurrengo partiden kontura:**

**2.- Autorizar un gasto máximo de 175.000 euros a cargo de las siguientes partidas del Presupuesto Municipal de 2024 y 2025:**

**1 0320.771.01.433.00 2024 (A-1160) ............................ 125.000,00 €**

**1 0320.771.01.433.00 2025 (05-A-1163) ............................ 50.000,00 €**

Ondoren, egoki den kreditu aldaketaren bitartez partida horien kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Si dichas partidas posteriormente fuesen ampliadas en base a la correspondiente modificación presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

**3.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran.**

**3.- Dar cuenta de la presente resolución al Pleno municipal en la siguiente sesión ordinaria.**

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Errenteria, en la fecha de la firma

Garapen ekonomikoko zinegotzi delegatua/ Concejala delegada de Desarrollo económico

Leire Mazizior Egilegor

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

# I. ERANSKINA / ANEXO I

## Hiri-ekonomia mantendu eta sustatzeko enpresa-ekimen berriak abiaraziaz lokal eta kale espazio hutsak dinamizatzeko dirulaguntza II

## Subvención para dinamizar locales y espacios vacíos mediante la puesta en marcha de nuevas iniciativas empresariales para el mantenimiento y promoción de la economía urbana II

## OINARRI ESPEZIFIKOAK

**1.- Dirulaguntzaren xedea**

Oinarri hauen xedea da Errenteriako tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz, hiri-ekonomiaren esparruko jarduera ekonomikoa eta enplegua mantentzeko, pertsonei zuzendutako edonolako zerbitzu eta jarduerei lotutako enpresa-ekimen berriak abiarazteko, mantentzeko eta kale espazio hutsak dinamizatzeko dirulaguntzak arautzea.

Programak helburu hauek ditu:

- Hiriko ekonomia-sarean negozio berriak jartzea (merkataritza, zerbitzuak, ostalaritza).

- Orain arte errentagarriak izan diren negozioei jarraipena ematea, enpresen transmisioa erraztuz eta lokalak ixtea saihestuz.

- Lokalak zein merkataritza-gune hutsak mobilizatzea, negozio edo enpresa berriak instalatzeko aukera emanez.

- Gaur egun kaletik zuzeneko sarbiderik ez duten instalazioetan dauden negozioak kale mailan jartzea.

Dirulaguntzak 2024 eta 2025an emango dira norgehiagokarik gabeko modalitatean.

**2.- Dirulaguntza zein aurrekontu-kredituri egotziko zaien eta dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa.**

Dirulaguntza hauei esleitutako gehieneko zenbatekoa 175.000,00 eurokoa da, bi urtetan banatuta, aurrekontuko kontu-sail hauen kargura:

**1.- Objeto de la subvención**

El objeto de las presentes bases es regular la concesión de subvenciones para el mantenimiento de la actividad económica y el empleo en el ámbito de la economía urbana, la puesta en marcha de nuevas iniciativas empresariales vinculadas a todo tipo de servicios y actividades dirigidas a las personas, así como la dinamización de locales y espacios vacíos, de Errenteria

Este programa persigue los siguientes objetivos:

- Instalación de nuevos negocios en el tejido económico urbano (comercio, servicios, hostelería).

- Dar continuidad a los negocios que hasta ahora han sido rentables, favoreciendo la transmisión empresarial y previniendo el cierre de locales.

- Movilizar tanto los locales como los espacios comerciales vacíos, posibilitando la instalación de nuevos negocios o empresas.

- Reubicar a nivel de calle negocios que están situados actualmente en plantas que no tengan acceso directo desde la calle.

Las subvenciones se concederán en 2024 y 2025 en la modalidad de concurrencia no competitiva.

**2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.**

La cuantía total máxima asignada a estas subvenciones asciende a 175.000,00 €, repartidos en 2 anualidades con cargo a las siguientes partidas

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

presupuestarias:

1 0320.771.01.433.00 2024 (A-1160)........................... 125.000,00 €

1 0320.771.01.433.00 2025 (05-A-1163)........................... 50.000,00 €

Hala ere, eskabideen kopurua eta zenbatekoa emandako kopurua baino handiagoa bada, Errenteriako Udalak zenbateko hori handitzen ahalko du, aurrekontuan eskuragarri egongo den zenbatekoaren arabera.

No obstante, si el número y cuantía de solicitudes superase la cantidad destinada, el Ayuntamiento de Errenteria podrá ampliar el citado importe, en función de su disponibilidad presupuestaria.

Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izanen du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**3.- Onuradunak**

Dirulaguntza hauen araubidea bakarrik aplikatuko zaie beren kontura diharduten mikroenpresa eta langileei, baldin eta 2024an edo 2025an proiektu hauetako bat badute:

- 5. ataleko baldintzak betetzen dituen **negozio berri bat sortzea** dute udalerriko lokal batean.

- Kaletik zuzeneko sarbiderik ez duen lokal baten **negozioa birkokatzea** 5. ataleko baldintzak betetzen dituen lokal batera (helburuko establezimendua).

- Errenterian eta kale mailan egongo den lokal berean **negozio bati jarraipena** ematea, erretiroa, heriotza eta abarrengatik ixtea aurreikusita.

**3.- Beneficiarios**

El régimen de las presentes subvenciones será de aplicación exclusivamente para aquellas microempresas y personas trabajadoras por cuenta propia que durante 2024 o 2025 vayan a realizar una de estas acciones:

- **Creación de un nuevo negocio** ubicado en un local del municipio que cumpla con los requisitos del apartado 5.

- **Reubicación del negocio** de un local que no tienen acceso directo desde la calle a uno que cumpla con los requisitos del apartado 5 (establecimiento de destino).

- **Transmisión de un negocio**, dando continuidad en el mismo local, que estará situado en Errenteria y a pie de calle, en previsión de cierre por jubilación, fallecimiento, etc.

**4.- Onuradunen betebeharrak**

2024an edo 2025an mikroenpresek eta beren konturako langileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- JEZaren erroldan alta emanda egotea.
    - Negozio eta transmisio berri bat sortzen: jarduera ekonomikoa hasi eta JEZaren erroldan alta eman izana, ondorengo dataren batean:

**4.- Requisitos de las personas beneficiarias**

Las microempresas y personas trabajadoras por cuenta propia durante 2024 o 2025 deberán cumplir:

Que estén dados de alta en el padrón del IAE.

En creación de un nuevo negocio y transmisión: Que hayan comenzado su actividad económica y se hayan dado de alta en el

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

→ 2023ko azken hiruhilekoa.
→ 2024 edo 2025 bitartean.

10 langile baino gutxiago izatea

Urteko fakturazioa, benetakoa edo aurreikusia, 2.000.000 eurokoa edo txikiagoa izatea.

Fakturaziotzat hartuko da titular beraren jarduera osotik eratorritako negozioen kopuru osoa edo salmenten bolumen osoa, JEZaren epigrafe batean baino gehiagotan inskribatuta badaude.

Jardueraren urte oso bat osatu ez duten onuradunen kasuan, egiazki egindako tartea urtez urte luzatuko da.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Errenteriako Udalarekikoak eguneratuak izatea, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako ezein debekutan ez egotea.

padrón de IAE durante:
→ El último trimestre de 2023.
→ Durante los años 2024-2025.

Que disponga de una plantilla inferior a 10 trabajadores

Que tenga una facturación anual, real o prevista, igual o inferior a 2.000.000 euros.

Se entenderá por facturación, la cifra total de negocios o volumen total de ventas derivada de toda la actividad de un mismo titular, si se hallan inscritos en más de un epígrafe del IAE.

En el caso de aquellos beneficiarios que no hayan completado una anualidad entera de actividad, se elevará proporcionalmente al año el intervalo efectivamente realizado.

Que se hallen al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la seguridad social y con el Ayuntamiento de Errenteria, y que no se encuentran incursos en ninguna causa de prohibición para obtener la condición de beneficiaria señaladas en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones.

**5.- Jatorriko eta/edo helburuko establezimenduen betekizunak**

1. Kasu guztietan, destinoko establezimenduak betebehar hauek izanen ditu:

- Errenterian egotea,
- Beheko solairuan kokatzea, kalerako zuzeneko sarbidearekin, establezimendu independente batean edo galeria edo merkataritza-gune batean integratuta,
- Eta, transmisioen kasuan izan ezik, lokal hutsa izatea: martxan jarri edo lekuz aldatu baino 3 hilabete lehenago gutxienez jarduerarik ez izatea.

2.- Birkokatuz edo lekuz aldatuz gero, jardueraren aurretiko kokapenak (jatorrizko establezimenduak) baldintza hauek bete beharko ditu:

**5.- Requisitos de los establecimientos de origen y/o destino**

1. En todos los casos, el establecimiento de destino deberá:

- Estar situado en Errenteria,
- Ubicarse en planta baja, con acceso directo a la calle, ya sea en un establecimiento independiente o integrado en una galería o espacio comercial,
- Y, excepto en el caso de transmisiones, ser un local vacío: que carece de actividad con carácter previo (al menos 3 meses) a la puesta en marcha o traslado.

2.- En el caso de reubicaciones o traslados, la ubicación previa de la actividad (el establecimiento de origen) deberá cumplir además los siguientes requisitos:

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

- Errenterian egotea
- Kaletik zuzeneko sarbiderik ez izatea
- Beheko solairua ez den beste solairu batean egotea (solairuartea edo sotoa barne)

Deialdi honen ondorioetarako, jarduera eskualdaketak eta lekualdatzeak bateraezinak dira.

**6.- Dirulaguntza lerroak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak**

Proiektu guztietan 2024an eta 2025an egindako gastu onargarriaren %100a diruz lagunduko da, beti ere egoera bakoitzerako 7. puntuan ezarritako guztizko muga gainditu gabe.

Jarduera ekonomikoan alta 2023ko azken hiruhilekoan emandako kasuetarako, kontu hartuko dira 2023ko Urria, Azaroa eta Abendua bitartean eragindako gastuak ere.

Edozein kasutan, ez dira kontuan hartuko ez BEZa, zein bestelako zerga eta tasak, ezta ohiko jarduerari lotutako bestelako gastuak ere.

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuetatik edota erakunde pribatuetatik onuradunek xede bererako jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

**6.1. Negozioa edo enpresa ekimena abiarazteko hasierako gastu edo inbertsioak**

- Enpresa eratzeko eta jarduera baimena eskuratzeko gastuak.
- Notaritzako eta erregistro gastuak.
- Obra proiektuak eta egokitze lanak eta/edo birgaitzeko obrak egitea.
- Tresneria, altzari, makineria, etab.
- Proiektuarekin zerikusia duten komunikazio

- Estar situado en Errenteria
- No tener acceso directo desde la calle
- Estar situado en una planta diferente a la planta baja (inclusive entreplanta o sótano)

A los efectos de esta convocatoria, se entiende que las transmisiones de actividad son incompatibles con los traslados.

**6.- Gastos subvencionables**

En todos los proyectos se subvencionará el 100% del gasto admisible realizado durante 2024 y 2025, siempre que no supere la cuantía máxima establecida en el apartado 7.

En los casos que la actividad fuera dada de alta en el útimo trimestre de 2023, también se podrán incluír aquellos gastos devengados en los meses de Octubre, Noviembre y Diciembre de 2023.

En todo caso, no se tendrán en cuenta el IVA, ni otros impuestos y tasas, ni otros gastos relacionados con la actividad ordinaria.

Estas subvenciones serán compatibles con cualquier otra subvención, ayuda, ingreso o recurso procedente de otras administraciones públicas, y/o entidades privadas, que para el mismo fin pudieran percibir las entidades beneficiarias.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**6.1. Gastos o inversiones iniciales de la puesta en marcha del negocio o iniciativa empresarial:**

- Gastos de constitución de la empresa y obtención de la licencia de actividad.
- Gastos notariales y de registro.
- Proyectos de obras y obras de adecuación y/o rehabilitación
- Equipos, mobiliario, maquinaria, etc.
- Gastos de comunicación relacionados con el

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

gastuak: publizitate-kanpainak, web orrien diseinua, sare sozialen diseinua.

- Lekualdatze eta transmisioetan, dagoeneko zegoen jarduerarekin jarraitu ahal izateko beharrezkoak direnak.

**6.2. Hutsik dagoen merkataritza lokal batean irekitzeko lokalaren alokairu edo erosketa gastuak**

Merkataritza lokala hutsik bazegoen, lokalaren alokairu gastuaren edo erosketa diruz lagunduko da.

Lokalaren alokairuan gehienez ere 12 hilabeteko dirulaguntza emango da eta, gehienez ere, 2025ko azaroaren 30era arte.

**6.3. Dirulaguntza handitzea**

Proiektuak, gutxienez, baldintza hauetako 2 betetzen baditu, 1.000€ gehiago eman ahal izango zaizkio, betiere egindako gastu onargarria gainditzen ez badu.

- Norberaren konturako langilea emakumea bada, edo emakumeek % 50etik gorako partaidetza badute sozietatean.

- Establezimenduak “Euskaraz Barra Barra” (e//) ziurtagiria badu.

- TicketBAI ezartzean, euskaraz ere egiten bada eta erosketa-ticketak euskaraz eman baditzake.

- Eskabidearen egunean merkataritza, ostalaritza edo zerbitzuetako eskualdeko zein gremioko elkarte batean izena emanda dagoela egiaztatzen bada.

- Lokala abian jartzeko egin beharreko inbertsioek hobekuntza ekartzea irisgarritasun unibertsalari dagokionez.

**7.- Dirulaguntzen zenbatekoak**

Hurrengo taulan zehazten dira proiektu bakoitzeko gehieneko zenbatekoak:

proyecto: campañas publicitarias, diseño de páginas web, diseño de redes sociales.

- En traslados y transmisiones, las necesarias para poder continuar con la actividad ya existente.

**6.2. Gastos de alquiler o compra para apertura o traslado a local comercial vacío**

Si el local comercial estaba vacío, se subvencionará el gasto de alquiler o compra del local.

En el alquiler del local se subvencionará hasta un máximo de 12 mensualidades y como máximo hasta el 30 de noviembre de 2025.

**6.3. Incremento de la subvención**

Si el proyecto cumple con, al menos, 2 de los siguientes requisitos, se le podrán conceder hasta 1.000€ adicionales siempre y cuando no exceda del gasto efectivamente realizado.

- Si la trabajadora por cuenta propia es mujer, o la participación de mujeres en la sociedad es superior al 50%

- Si el establecimiento dispone del certificado “Euskaraz Barra Barra” (e//).

- En la implantación de TicketBAI, si también se realiza en euskera y pueden emitir los tickets de compra en euskera.

- Si se acredita la inscripción a una asociación tanto zonal como gremial de comercio, hostelería o servicios a la fecha de la solicitud.

- Que las inversiones a realizar para la puesta en marcha del local supongan una mejora en términos de accesibilidad universal.

**7.- Cuantías de la subvención**

Las cuantías máximas por cada solicitud se definen en la siguiente tabla:

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

| Dirulaguntza lerroak / Líneas de subvención | Hasierako gastu edo inbertsioak / Gastos o inversiones iniciales | Lokalaren alokairua / Alquiler del local | Lokalaren erosketa / Compra del local | Gehigarria / Incremento | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|
| **a)Enpresa ekimen berria / Nuevo negocio** | 5.000€ | 3.600€ | 3.600€ | 1.000€ | 9.600€ |
| **b)Leku aldatzea /Traslado** | 5.000€ | 3.600€ | 3.600€ | 1.000€ | 9.600€ |
| **c)Transmisioa /Transmisión** | 8.600€ | – | – | 1.000€ | 9.600€ |

Eskaera bakoitza definitutako lerro bati egokitu behar zaio (negozio berria, lekualdatzea edo transmisioa). Lerroak bateraezinak dira haien artean; beraz, guztizko zenbatekoak ez dira inola ere gehituko dirulaguntzaren azken zenbatekoan.

Cada solicitud se deberá ajustar a una de las líneas definidas (nuevo negocio, traslado o transmisión). Las líneas son incompatibles entre ellas, por lo que en ningún caso se acumularán los importes totales a la cuantía final de la subvención.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk ere kontuan hartuz.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**8.- Eskaerak aurkeztea**

**8.- Presentación de solicitudes**

**Jarduera ekonomiko bakoitzak eskabide bakarra aurkezten ahalko du.**

**Cada actividad económica podrá presentar una única solicitud.**

Eskaerak telematikoki, Errenteriako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, edo paperean aurkez daitezke, ZU! Zerbitzuan zein 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipatzen dituen erregistroetako edozeinetako batean.

Las solicitudes podrán presentarse bien por vía telemática a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Errenteria o en papel en el servicio ZU! o cualquiera de los registros a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015.

Eskabide eredua Errenteriako Udalaren zerbitzu telematikoetan jasotzen da.

El modelo de solicitud se recoge en los servicios telemáticos del Ayuntamiento de Errenteria.

Eskabidearekin batera, eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Junto con la solicitud, las personas solicitantes deberán presentar la siguiente documentación:

* Nortasuna:

NAN, eraketa-eskritura...

Notario-ahalordea edo apud acta, ordezkarien kasuan.

* Urteko fakturazioa eta jarduera nagusia:

12 hilabetetik gorako antzinatasuna duten jardueren kasuan: Onetsitako urteko kontuak edo errentaren

* Personalidad:

DNI, escritura de constitución...

Poder notarial o apud acta, en el caso de representantes.

* Facturación anual y actividad principal:

En caso de actividades con una antigüedad mayor a 12 meses: Cuentas anuales aprobadas o declaración

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

aitorpena (pertsona fisikoak)

12 hilabete baino gutxiagoko antzinatasuna duten jarduerak edo eskaera egiten hasten ez direnak: Bideragarritasun plana edo proiektuaren memoria (I. eranskina), behar bezala betea.

* Egoera:

Jatorrizko edo helmugako establezimenduan jarduerarik izan den edo ez egiaztatzen duten agiriak.

Hala badagokio, JEZaren erroldan jardueraren titulartasuna eskualdatzeko eta negozioaren titulartasuna aldatzeko agiria.

* Hasierako inbertsioak:

Benetan egindako gastuen fakturak eta horiek ordaindu izanaren frogagiriak. Fakturetan argi eta garbi identifikatutako gastuen deskribapena agertuko da. Abonamenduetan argi eta garbi identifikatu beharko dira ordainketaren hartzailea eta igorlea.

Justifikazio-aurrekontua, ekintza hasi ez bada edo oraindik amaitu ez bada.

Hala badagokio, egindako obren dokumentazio grafikoa, euskarri grafikoak, erositako materiala, etab.

* Lokalaren alokairua edo erosketa:

Alokairu edo salerosketa kontratua, eta ordainketak ordaindu izanaren frogagiriak.

* Dirulaguntzaren gehikuntza:

Gizarte Segurantzako autonomoen araubide berezian alta eman izanaren egiaztagiria edo eraketa eskriturak.

E// ziurtagiria izatearen egiaztagiria.

Ticket Bai sistema euskaraz ezarri dela egiaztatzea.

Elkarte batean izena eman izanaren egiaztagiria.

Lokalean egindako inbertsioek irisgarritasun unibertsala hobetzen dutela frogatzen duten agiriak.

* Bestela ere, deialdi honetan jasotako kasuak frogatzeko egoki iritzitako beste edozein agiri.

Interesdunak dokumentu hauetakoren bat Errenteriako Udalaren beste dirulaguntza motaren

de la renta (personas físicas)

Actividades con una antigüedad menor a 12 meses o sin iniciar en el momento de realizar la solicitud: Plan de viabilidad o Memoria del proyecto (Anexo I) debidamente cumplimentada.

* Situación:

Documentos que acrediten la existencia o ausencia de actividad tanto en el establecimiento de origen, como en el de destino.

En su caso, documento de transmisión de la titularidad de la actividad y cambio de titularidad del negocio en el padrón de IAE.

* Inversiones iniciales:

Facturas de los gastos efectivamente realizados, así como justificantes de abono de las mismas. Las facturas deberán contener la descripción de gastos claramente identificados. En los abonos deberán quedar claramente identificados el receptor y el emisor del pago.

Presupuesto justificativo, en el caso de que la acción no se haya iniciado o no haya finalizado todavía.

En su caso, documentación gráfica de las obras realizadas, soportes gráficos, material adquirido, etc.

* Alquiler o compra del local:

Contrato de alquiler o de compraventa, así como justificantes de abono de los pagos.

* Incremento de la subvención:

Documento acreditativo de alta en el régimen especial de autónomos de la Seguridad Social o escrituras de constitución.

Acreditación de estar en posesión del certificado E//.

Acreditación de la implantación del sistema Ticket Bai en euskera.

Acreditación de la inscripción a una asociación.

Documentación que acredite que las inversiones realizadas en el local supongan una mejora en términos de accesibilidad universal.

* En su caso, cualquier otro documento que se estime oportuno para acreditar los supuestos recogidos en esta convocatoria.

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

baterako aurkeztu badu, hala adierazi beharko du eskabidean eta ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea.

En caso de que la persona interesada haya presentado ya alguno de estos documentos para alguna otra línea de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria, así deberá indicarlo en la solicitud y no será necesario que vuelva a presentarla.

**9.- Eskabideak aurkezteko epea eta justifikazioa.**

**9.- Plazo de presentación de solicitudes y justificación.**

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasi eta 2025ko azaroaren 3an bukatuko da.

El plazo de presentación de solicitudes estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y hasta el 3 de noviembre de 2025.

Frogagiriak aurkezteko epea 2025ko abenduaren 1an amaituko da.

El plazo para presentar la documentación justificativa finalizará el 1 de diciembre de 2025.

**10.- Laguntzak eman eta ordaintzea.**

**10.- Concesión y abono de las ayudas.**

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokarik gabekoa izanen da; izan ere, laguntzak eskaerak aurkeztu ahala emanen dira.

El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia no competitiva; dado que las ayudas se concederán por orden de presentación de las solicitudes.

Dirulaguntza honela ordainduko da:

- Gastu onargarriaren %80, laguntza emateko ebazpena eman ondoren.
- Gastu onargarriaren %20, gastu guztien justifikazioa eta jardueraren alta JEZn aurkeztu ondoren.

El abono de la subvención se realizará de la siguiente manera:

- El 80% del gasto admisible tras la resolución de concesión de la misma.
- El 20% del gasto admisible una vez presentados la justificación de todos los gastos y del alta de la actividad en el IAE.

**11.- Onuradunen betebeharrak**

- Jarduera martxan mantentzea gutxienez urtebetez, JEZ zergan alta bideratu zenetik kontatzen hasita, arrazoi justifikatuengatik denean izan ezik (heriotza, gaixotasun larria, jardueraren jarraipenarekin bateraezinak diren lekualdatzeak, etabar.). Jarduerari uzten badio, hiru hilabeteko epean egiaztatu beharko ditu arrazoi horiek, JEZ zergan baja emateaz gain.
- Dirulaguntza ematea eragin duen xedea betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera burutzea.
- Dirulaguntza jaso duen lokala eskabidean adierazitako jarduerarako erabili beharko da nahitaez.
- Dirulaguntza eman duen organoari justifikatzea

**11.- Obligaciones de los beneficiarios**

- Mantener la actividad en funcionamiento durante al menos un año desde el alta en el IAE, salvo causas justificadas (fallecimiento, enfermedad grave, traslados incompatibles con la continuidad de la actividad). En caso de cese de actividad, deberá acreditar estos motivos en el plazo de tres meses, además de darse de baja en el IAE.
- Cumplir con la finalidad para la que se concedió la subvención, ejecutar el proyecto, realizar la actividad.
- El local que ha sido objeto de la subvención se deberá destinar obligatoriamente a la actividad reflejada en la solicitud.
- Justificar ante el órgano concedente el

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

betetzen dituela dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak, jarduera burutzen duela eta xedea betetzen duela.

- Laguntza eman duen organoak egiten dituen egiaztapen jardueren mende jartzea; horretarako, eskatzen dioten informazio oro emango du.

- Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerarako bestelako dirulaguntza, laguntza edo sarreraren bat jaso duela. Jakinarazpen hori ahal bezain laster egin beharko du eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

- Kontabilitate-liburuak, erregistroak eta gainerako dokumentuak merkataritzako eta sektoreko legeriak ezarritakoaren arabera egunean izatea.

- Jasotako fondoak erabili direla egiaztatzeko dokumentuak gordetzea -elektronikoak barne-, egiaztapenerako eta kontrolerako eska baitaitezke.

- Lokala jabetzan erosten den kasuetan, onuradunak ezingo du lokala 2 urte baino lehen saldu.

**Ohar garrantzitsua**: deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2024 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

cumplimiento de las condiciones, la realización de la actividad y el cumplimiento del objeto de la subvención.

- Someterse a las actuaciones de comprobación que realice el órgano concedente, facilitando cuanta información le sea requerida.

- Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas o ingresos para la actividad subvencionada. Esta comunicación deberá hacerse lo antes posible y, en todo caso, antes de justificar la aplicación dada a los fondos recibidos.

- Tener al día los libros, registros y demás documentos contables de acuerdo con lo establecido en la legislación mercantil y sectorial.

- Conservar los documentos acreditativos del uso de los fondos percibidos, incluidos los electrónicos, para su verificación y control.

- En los casos de adquisición, el beneficiario no podrá vender el local antes de 2 años.

**Nota importante**: esta convocatoria deviene de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2024. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

# II. ERANSKINA / ANEXO II: Proiektuaren memoria / Memoria del Proyecto

| **PROIEKTUARI BURUZKO DATUAK / DATOS SOBRE EL PROYECTO** | |
|---|---|
| Negozioaren izena / Nombre del negocio | |
| Jardueraren titularra(k) / Titular(es) del negocio | |
| Sektorea / Sector | ☐ Txikizkako merkataritza / Comercio al por menor<br>☐ Ostalaritzako jarduerak / Hostelería<br>☐ Pertsonei zuzendutako zerbitzuak / Servicios dirigidos al usuario final<br>☐ Azken bezeroarekin edo herritarrarekin harreman zuzena duten bestelakoak / Otros relacionados con el usuario final |
| Helbidea / Dirección | |
| **JARDUERARI BURUZKO DATUAK / DATOS SOBRE LA ACTIVIDAD** | |
| Proiektuaren azalpena / Descripción del proyecto | |
| Zer produktu-zerbitzu saldu nahi den / Qué producto servicio se quiere ofrecer | |
| Zeini saldu nahi zaio / A quié está dirigido | |
| Lehiakideekiko abantaila / Ventaja sobre el competidor | |

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

| | | | |
|---|---|---|---|
| Alderdi berriztatzaileak / Aspectos innovadores | | | |
| Nola emango da ezagutzera negozioa / Cómo se va a dar a conocer el negocio | | | |
| **JARDUERAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK / PREVISIÓN ECONÓMICA DE LA ACTIVIDAD** | | | |
| | | **Guztira hilean /Total mes** | **Guztira urtean / Total año** |
| **Salmenta eta diru-sarrerak / Ventas e ingresos** | | | |
| **Gastu orokorrak / Gastos generales** | | | |
| | Lansariak / Sueldos | | |
| | Alokairua / Alquiler | | |
| | Konponketak / Reparaciones | | |
| | Aholkularitza / Consultoría | | |
| | Publizitatea / Publicidad | | |
| | Aseguruak / Seguros | | |
| | Hornidurak / Provisión | | |
| | Zergak / Impuestos | | |
| | Bestelakoak / Otros | | |
| **Inbertsioak / Inversiones** | | | |
| | Lokalaren erosketa / Adquisición local | | |
| | Egokitzapen obrak / Obras | | |

ESKUfe89a5ea-422a-4813-9b18-780d6f36153e

| | | | |
|---|---|---|---|
| | adecuación | | |
| | Altzariak eta ekipamendua / Mobiliario y equipamiento | | |
| | Hardware - softwarea | | |
| | Bestelako hasierako kostuak / Otros costes iniciales | | |
| **Finantziazioa / Financiación** | | | |
| | Baliabide propioak / | | |
| | Dirulaguntzak / Subvenciones | | |
| | Maileguak / Préstamos | | |
| | Besterik / Otros | | |

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2024SDBD0011-DEKRETUA/DEKRETUA (ERRENTERIAKO UDALA) |
| --- | --- |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: LEIRE MAZIZIOR EGILEGOR - 44144575P
Data / Fecha: 2024/04/10 08:53:40